

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ERALDAKETA LEHIAKORRERAKO SOZIETATEA SA-REN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA 2017

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak joan den irailaren 26an aho batez onartu zuen Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea SAREN ekonomia eta finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2017ko ekitaldiari dagokiona.

2017ko **urteko kontuei** dagokienez, Epaitegiak **aldeko iritzia** plazaratu du.

Gainera, ondorioztatu du Sozietateak **zuzentasunez bete duela** 2017ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen **legezko araudia**, nahiz Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean ekitaldi horretarako finkatutako birjartze tasa gainditu den.